JORRALLA
24
Eguaztena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
...kua ... 6,00 irko. Iru hil.
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-Itunmena 62,00 » urtez
Atzarri Jetakuak 100,00 » »
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.967 zenbakija

Egunekua

Eztabaideak

t Astelen iluntzia zan. Eta nire ufian, eztabaida gogoŕa soŕtu zan.

Eztabaida aretako motiñak, euzkotaŕak ziran, euzko-abeŕtzale sutsubak.

Erabilen eztabaidia be, andixik soŕtu zan: abeŕtzaletasunetik.

Euzko - abeŕtzaletasunak, euzkerea ta euzko-eleŕtija be, beriak dauz.

Eta eztabaidan nastauta ebiltzan batzuben eretxija, auxe zan: euzko-elez idazten eztan eleŕtija, Euzkadi osoko eskotu gustijak ageŕtu ta abeŕtzale lufinkain utzez idatziña ba'lego be, euzko-eleŕtija eztala. Erderaz idazten dan gustija, erdel -eleŕtija dala.

Beste batzuben eretxija, ostera, lenengoenaren aufkakua zan: euzko-gayetzaz eta abeŕtzale-gogoz idazten dana, gazteleraz idatziña egonaŕen, euzko-eleŕtija zala.

Eta onetariko eztabaidarik geyenetan jazo oi-dana jazo zan: bijak izpidia, bijak aŕazoya.

¿Bitzubek aŕazoya? Ez; ezta ori egija Ni, beintzat, uste onetakua naz. Gari-uruna ixateko, garijaren uruna ixan biaŕ dala. Beraz euzko-eleŕtija ixateko, euzko-elez idatzija ixan biaŕ dala.

"Libe" antzeŕki-eleŕtija, esaterako, euzko-abeŕtzaletasuna eŕotik aŕtuta euzko-kemen eta adore gustijak idazkoŕtzeratuta idatziña eztagonik, ezin esan leike. Baña euzko - abeŕtzaletasun gustijori, erderaz idatziña dago. Erdel-eleŕtija da.

Eta ordez, "Goi-Argi", abeŕtzale-usain bako antzeŕkija da, baña euzko-elez idatzija. Beraz, euzko-eleŕtija.

Abeŕtzaletasuna, gauza bat da. Eleŕtija, beste bat. Ni eretxi onetakua naz, beintzat Eta okeŕ ba-nago, azketsi.

Eleŕtija ta abeŕtzaletasuna bardingiak dirala ikusteko, ona emen eredu bi.

"Jonalber", Atxika-Alende'taŕ Alberta idazle ospetsubaren "Jel", "Jelin" eta "Jelote'tzazko" idazlan edeŕak abeŕtzale -idazlanak eztiranik, eztaust iñok esango, ezta Arantzadi'taŕ Ingartzi jakintsubak idazten dauzan idazlan gelgaŕijak abeŕtzale-gunaz idatziña egoten eztiranik be. ¿Eta zer geyago? Gazteleraz idatzijak dirala; euzko-goguaren edezti jakingaŕija, gazteleraz abestu dabela; euzko-txori lumagia, gaztelaŕen luma aŕuakaz jantzi ta txukundu dabela... Besterik ezebez. Euzko-eleŕtijaren apuŕik bez...

¿Euzkotaŕa aurpegijan ezagututen dala? Ez, irakuŕle: euzkotaŕa izkuntzan, itz -egikeran ezagututen da.

Eta au egiztuteko, ondiño antxiña eztala jazoriko jazokuntxu auxe esango dautzubet. Igande goiz bat zan, eta Atxuri'n belbilan saŕtuta, Gernika'rantz giñoyazan. Gure alboko aulkijetan, atzeŕiŕaŕ-antzeko andra-gixon bi jezaŕi ziran. Ondo jantzijak bijak, bijak aberats-antzekuak. Kapela aundijakin-eta egozan.

Gu euzkeraz iñardu gintzazan; areik, inglanderaz asi ziran.

Gu, orduban, zelan itz-egiŕen eben obeto uaŕtiaŕen, ixildu-egin gintzazan. Eurak, ordez, euŕen adi gu imindiaŕen-edo, gogotsubago jardun ziran.

Eta gogotsuben eragoyoen artian, nire onduan eguan batek, ba-iñoskun:

—Oŕeik be nununguak ba-dozak-eta...

—Nabaŕniz'kuak ez beñepein—bestatek erantzun eban.

—Nabarniz'kuak ez, baña andik uŕun bakuak bai, oŕatiño—irugaŕenak erantzun eban.

Eta irugaŕen erantzun eban au, ¿nor zala-ta zagoz, irakuŕle?

Inglandaŕtzat euki geban atzeŕiŕaŕ antzeko gixona bera.

Ona emen euzkotaŕen ezaugaŕija aurpegijetan eztaguanaren eredu bat. Beraz euzko-ikuŕa gure aurpegijetakua ezta, gure izkuntzakua baño.

Eta laŕ luzetuteko bilduŕik ezpa-neu, onen antzeko eredu asko ta asko ageŕtuko neuskixubez.

"Euzkeraz irakuŕten ezpa-dogu gauza dan irakuŕgairik idazten eztalako da"—esan oi-dabe euzkeldun euzkeltzale (?), batzuk. Eta oneik euzkeldun euzkeltzaliok, euzkeraz gauza dan idazkirik eztagolako, asi ipuñetan eta jaupa idaztiraño gustijak, erderazkuak darabilez.

"Josutxu" euzkel-idaztitxu txukuna baxen eleiz-liburu begikua, nun saltzen dan be eztakije. "Izar-Argija", "Argi Donia" ta beste ainbat jaupa-idaztiren baŕirik be, eztakije.

Oŕila'n ate-atietaraño ija eldu gara. Eta gure euzkeldun euzkeltzaliak, euzkeraz gauza dan idaztirik eztagolako, Eguzkitza jaupari aguŕgaŕijaren "Loreta'ko Ila,,'ren ordez, nok idatzija dan be, eztakijanen baten erderazko idaztija erosiko dabe.

"Kirikiño", Altuna, Gaŕo, Aŕutza, "Baŕensoro", "Orixe" ta abaŕen euzkel-ipuñen ordez, gazteleraz idatziŕako edozein ipuin baŕagaŕi.

Agiŕe'taŕ Domeka'ren "Garoa,,'ren ordez, beste edozein txakuŕ-aundiko "nobela" zakaŕ eta "iguin"-en bat.

Aŕese - Beitia, "Lauaxeta", "Orixe", Jauregi ta beste euzko-oleŕkari askoren oleŕki-idaztijak eztabez ezagutuko. Ordez, baña, gazteleraz idatzi ixan diran oleŕki -ixeneko gustijak irakuŕiko ebezan. Eta euzkeldunak dira, ta euzkeltzaliak ganera.

Baña euzkeraz gauza dan gauzarik idazten eztalako, erderaz irakuŕten dabe.

¡Gauza dan gauzarik eztala idazten!

Ba-liŕeke. Baña gauza diranak diran edo ez jakiŕeko, lenengo irakuŕi egin biaŕ dira.

Eta zubek, oŕetara itz-egiŕen dozubenok, ¿euzkeraz idazten diran idazlan gustijak irakuŕten dozubez...?

Ara, bein, zer jazo yatan.

Adizkide batek aguŕtu nendun. Eta edeŕ -egiŕiaŕen, olantxe esan eustan:

—Zure atzoko "Egunekua" baño atsegiñago ixan yatan irakuŕgairik, eztot iñoz irakuŕi.

—Poztuten naz erantzun neutsan—Baña zeuk esaten ezpa-daustazu, zetzaz idatzi neban be eztakit. Egunoro idazten dogunoi, egun batetik bestekua, aiztu egiŕen yaku, ba—erantzun neutsan. Eta uste bako nire erantzun onek mutututa laga eban.

¡Niri aiztu...! ¿Eta areri...? ¿Ni txalotuten asi zanari, zer...? Areri eziŕ aiztu aiztuteko, lenengo, ikasi egin biaŕ ixaten da-ta. Eta arek, nire auŕeguneko "Egunekо,,'rik, ezeban ikasi, ezta ikusi be... Ezeban irakuŕi... Baña bai nik arin igaŕi be. ¿Zirija nori saŕtu?

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

Euzkera-barik eztago euzko-erririk. Geure aberrija gaiżkatu gura ba-dogu euzkereari ekin dagijogun. Abertzale dala diñuan gastiak ordu-erditxu bat euzkereari emon biŕ dautso, ostantzian abertzaletasun otza dauko.

¿Gurasuak euzkera dakijela? Eta eztautzube erakutsi, ¿ezta? Orrein abertzaletasuna zelakua dan eztakigu.

Geure Irakasle bakarra ixan zan Sabin argijak zer egin eban badakixu. Aberrija ezagutu ebanekoxe euzkereari eldu eutson.

BILBAO Zorrion

"GOI-ARGI"

Gogo-bixiz gengozan Baŕiola'taŕ Abelin ospetsubaren "Goi-Argi" iru-ataleko euzkel-antzezkija ikusteko, ta, ikusi geban lengo igandez, "Campos Eliseos" antzokijan, eta bai geure gogua ondo asetuba ixan zala, gauza ain txukuna, gauza ain edeŕa ta ain bikaña ikusijaz.

¡A zuan euzkerea txairo, gozo ta eŕaz erabiltia! Atal bat alaitsu ageŕtu biaŕ zanian, euren baŕiketaldijari jagi-berezija, ifibaŕezko espan-bitaŕtetik urteniko alaŕasun-berezija izkuntzeari emonaz; asaŕe -aldijan gogoŕkerija ageŕtubaz eta ezpiaŕ -aldijan bigun, samuŕ ta kutunki erabilijaz.

Ordu alayagorik, "Goi-Argi" ikusten baño, eztot igaro-ixan egundo iñungo antzokiŕan. Eta beste ikusle askori, bardin entzun ixaŕ neutsen. Eta ez gero, ni lako petrekiluei, gixon argi ta jakintsubai baño.

Oŕegaŕik, onetarikoren batzuk, antzez -lan oŕetzaz jardungo dirala ustia dodalarik, eta bestetik, nire idazkoŕtz traketzak ain gauz edeŕatzaz jardunaz, goraldu baño, beraldu geyago egingo leukela dakidalarik, ardura ori itxi egingo dot arein ardurapian.

Ez baña, euzko-jai-edeŕ au opaldu euzkun Bilbao'ko Euzko-Gastedi'ko bazkintza aŕtezkarijari eskeŕak egin eta zorijona emon barik. ¡Ya mutilak, arin-arin beste bat!

Zorijonak baŕa-be, "Goi-Argi,,'ren egilia dan Baŕiola jaun antzezgile argijari.

Eta azkenez, ZORIJONAK izki andijakaz "Ataŕene" "drogosuari", bere lagun antzezlarijai eŕuan dakijokazan. ¡Etza rie makalak zubek! Baña i antxe be, "drogoso" ageŕtu biaŕ. ¡I az ixateko "elementos"!

AGUŔTU

Goyan aŕaturiko antezkixuna ikustera etoŕi zirala-ta, emen aguŕ gebazan "Maŕe" mungiaŕ idazleme ezkaŕa, "Ete" Markina'ko idazleme ospetsuba, "Kardantxilo" Durango'kua, "Norbait" Bedia'kua, Elgoibar'ko Isasmendi'taŕ Joseba anderea Ermua'ko Bengoetxea'taŕ Miren anderea ta Eibar'ko beste abeŕtzale aldra edeŕ bat. Beste bat aŕte danoi.

ABELETXE.

"Arno-pe" nere lagun zanen oroiz...

Nola aizez oŕiak eten
Itaiak garoa mozten
Aizkorak pago lodia
luŕeratzen...
Olan du gure bizia
Eriotz ifilariak
ebakitzen.

Kanpantoŕean
Dulun-luluna...
Eŕian mintzo
Ixil ituna.

Gogoak soña
Zapusturik
Bai arin iges
Ludiz goitik.

Begiak zabal
Baña lauso;
Gorputza zoŕ ta
otzik dago.
Ludiz uŕunat
Atsegiña...
Maite-malkoa
Bai samiña.

Umetan beti
Biotz ona;
Gaztetan ere
Zu gizona:
Izaŕez gajn gauŕ
Zoriona.

Lo goxo dagi
soin ilak orain
gurutze lirain
azpian.
Gogo pixkoŕak
Artuta laisteŕ
eraman arte
aldian.

Usobiaga'taŕ J. A.

Euskeltzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
ARIETA ATXIZALEA
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Deun Alberta Nagusija

Jorralla - 8'gn.

Elexa Ama deunak ixan dauzan seme goralgaŕijen aŕtian, aipagaŕijen bat ixan zan Alberta deuna. Jakintza-bidietan azkaŕ ibili ba-zan, deuntasunari yagokozan arazoetan uŕtenena zan. Suebia'n, Lingino 'ko uritxuban ludi onetara etoŕi zan. Beraz doistaŕa zan odolez.

Amasei urte eukozala zeruko deya entzun eban. Miren Neskutza'k oyu-egin eutsen eta Domeka deunaren Lekaiceba-batzako janzki garbijak eskatu euzan. Aldi areitan ixan be, domekaŕak entzute andikuak ziran, Europa'ko Ikastetxietan-eta edatu ziralako.

Benetzi-aldera juan zan, an eguan Ikastetxe nagusijan jakintza-gayak ikasi nai ebazan-eta. Jordano entzutetsubaren ikastolan ebilan. Baña ezer be ezebala ikasten eta andik aldendu guraz eguan. Domekaŕen Lekaide-batzan ezebala gauza andirik loŕtu ta iŕun eguan.

Egun goŕi baten juan zan Miren Neskutza'ren oñetara ta negaŕez eskatu eutson lagundu egijola. Beste gustijengan baño itxaropen geyago eukan ba, zeruko Ama garbi arengan. Miren deunak lagundu eutson eta bere ikasbide gustijak igaŕi eben zeozer jazo zala Alberta'gan.

Beste gustijen onduan argijen eta azkaŕena zan. Jakintza-gayetan, izkuntzetan eta gaste bati yagokozan adimen-ianetan auŕerengo ebilan. Ori zala-ta, Jakintsuba eritxoen. Beste batzuk, ostera, Nagusija eritxoen, Colonia eta Ratisbona'ko ikastetxietan erakusten emon eban bere jakintasun gustija. Amaikatxu ikasle juan ziran aren ikastolara.

Olako baten Paris'era dei-egin eutsen. Aldi areitan Paris'ko Ikastetxia zan beste gustijen buru. Europa'ko gastedijak aratuten ziran. Alberta deuna Paris'en ageŕtu zaneko ikasguak bete ziran. Baña deun argijak jakintzea ez-eze kistaŕtasuna, be, erakusten eutsoen.

Ikasguetan etziran saŕtzen ikasle gustijak eta Paris'ko zelai edo enparantza zabalen baten jaŕi eban Alberta'ren erakustokija. Ordun gero Alberta deunaren zelaya deritxo. Eta ikasle azkaŕak euki ba -ebazan. gustijak baño geyago balijoko eban Akino'taŕ Toma deunak. Lasteŕ igaŕi eban Alberta'k ikasle arengan ziran zerutaŕ azijak zelakuak ziran. Doibatza 'ren ixaŕik eŕeŕena ixango zala igaŕi eban.

Ikasguetan lan andijak egin ebazan, baña domekaŕak euren burutzat autu eben. Deun arengandik zer ikasi edeŕak etoŕiko yakezala-ta, Doipurubari eskatu eutsen euren artzaitzat emon egijela. Arazo oni eldu eutsonian, lekaidetxez lekaidetxe asi zan. Beti oñez joian eta bere aŕnayi gustijai dei-egiŕen eutsen. Gustijen osasunari zuŕ egokion.

Olako batean Ratisbona'ko gotzaña il zan eta Urban IV'gaŕenari auxe otu yakon: uri nagosi aretako gotzain Alberta deuna ixentatutia. Amaika negaŕ eragin eutson arazo arek, baña esanekua zalako, Ratisbona'ra juan zan.

Uriko gustijak bide erdi uŕte yakozan abaŕakaz-eta. Ori entzun ebanian Alberta deuna menditxu baten geratu zan eta gau iluna mendiz-bera jatsi zanian uriratu zan. Uŕengo goxaldian jaupea emoten txadonetaratu zanian eŕiko gustijak txaloka asi yakozan. Min emon eutson goralben arek.

Ratisbona'ko Gotzain zalarik Lion'go baŕzaŕera juan zan. Ludiko Gotzañak eta Janzkoŕdunak an batzaŕtu ziran eta gustijen Irakasle ixan zan Alberta deuna. Doipurubak berak be, eskutitz edeŕa bialdu eutsan

Andik lasteŕera gexotu zan. Larogeta saspi urte eukozan. 1280'gaŕan urtian, jakintzaz beterik eta zeruko eskeŕez ganezka zalarik il zan. Toki gustijetan eleizkixun gurenak egin ziran deun aren aintzaz. Beriala deuntzat guŕtu eben.

Orduz gero Alberta Nagusija Elexako ixaŕ diz-dizkoŕtzat euki dabe. Bere ikasle ixan zan Toma deunak aintzaldi edeŕak idatzi euzan Irakasle aretzaz.

Errijetatik

MAÑARIA

GEXUAK. — Gexorik aurkitzen dira, 'taŕ Pantzeska (Patxiko sakristaua) ta Laŕea'taŕ Ixidore andera. Osatu arin.

"Kapaua - erdikoa,,'ko Perderika, bere makaltasunetik osatuta, egubatenez Mixiño-elizkixunan ikasi gendun. Poztu giñian.

JUAN-ETOŔIAK.—Beŕiz era juan zan Ariznabaŕeta'taŕ Atanase irakaslemia.

—Yuŕe'tik etoŕi ziran Ipiña'taŕ Ikerne andera, bere alaba ta Zubizaŕeta'taŕ Efosale anderañoa.

—Bergara'tik, Ariznabaŕeta'taŕ Gotzontze andera.

—Bilbao'tik Garrido'taŕ Imanol gixona.

MAÑARIKO.

ARETXABALETA

Egun asko ez dira oraindik niola, ez nuala idatziko geyago "Zintzo,,'k zerabilkan gaiari erantzunaz. Baña, gauŕ, besterik dira nere asmoak nere lan edo egin beaŕak, uste baño lenago bukatu ditudalako, ta asti pixkabat nereganatu dedalako, zertxobait idaztia erabaki det. Aspaldiko "Kostantzi" bat nereganatu det, ta irakurtzean ara zer dion, gure "Zintzo,,'k neri galdetuaz:

"Eta zer diozu, zuen aldunak, Montzon, Agiŕe eta abar, Prieto, Ezkeŕa katalandaŕ eta abar, ibili dituzten izketaldiagaz? "Zintzo,,'k galdera onekin, azaldu nai ou, gu ezkeŕakin bat egiñak ibili gerala, eta ez gerala catolikoak, ta badakit, gogoŕ zabaltzen ari dala berak dakian tokian. Eta oŕixe erantzun nai nioke gauŕ eta azalduko diot, zein eŕu aundiakin dabilen "Zintzo" gixagaxoa.

Zer ikusi ete dauka Zumaŕaga'ko batzaŕak, an izan giñala ta, gu ezkeŕ bezela izentatzeko Agian, an. erlijioko gairen bat. erabili ote zan...? Ez noski!

Kontu egin zazu, Aretxabaletako, eŕia "peligro" aundi baten arkitzen dala. Eskoriatza'ko edo Aŕasate'ko, eŕiak, guda baten bitaŕtez, puskatu nai gaituztela. Begiratuko al ziñuke, gure eŕi onen aldez irtengo lutekenak "Ezkeŕak" edo "Eskubiak" diran? Noski eskubikoai begi obegoaz begiratuko zenioke, baño... ezkubiak lagunduke ez baluteke? Ondo dakizu ba zuk orixe bera gertatu dala, Zumaŕaga eta gañetiko batzaŕetan, gu beti gertu eŕi baten eskubideak zaintzeko, aldegunean eskubiakin, baño... laguntzen ez badute... ezkeŕakin ere bai...

Ez dauka ba zer ikusirik, batzaŕ auek, naiz da ezkeŕakin izan, kristautasuna gutxitzeke. Bestela neronek ere esango nuke, karlistak ez dirala katolikoak, ezkeŕakin bat egiten dutela. Oŕa aŕazoi bat, neroni gertatua. Ari giñan egun batean, iru lagun, bat sozialistea, karlista bestea eta ni dakizun bezela abeŕtzalea. Umore onean ari giñan, baña bat batean, sartu giñan politikara, eta zer uste dezu? Biak nere aurka asi ziran. Nik orduan esan alneikan biak bat egiñak egon zirala karlista ura ez zala katolikoa...? Esan esan, eta ez det esango ere. Badaduan erlijioko gai bat atera bagendre alde irtengo zuala karlista oŕe. Era berean zuk ere, lotsa izan bezaduke, guregatik esan eta esaten zinak esateko, batez ere "zerana zera Jakiñen gañean, abeŕtzaleen izen on tipekotzen zabiltz, eta "doctriña kristau ikasbideak dionez,, "Iñori inkendu ezkero, beartua dago beŕiz iori biurtzea". Kristau zintzoa zerate osoan nago, beteko dezula egi gaŕantzizko ori. Beste egun batean gai bat aztertuko degu, J. L.

AIT

GETXO

EZKONTZA-AGUŔA.—Igazi runbatian, Ugorta'ko jatetxe batian doya'taŕ Joseba Mirena'ren ezkonospatu zan.

Abeŕtzale onek eŕi onetan adizkidiak, beriala ikusi ziran, aintkide juan ziralako bere oturuntzaruntza au, poz eta alaitsu amaitu zan.

ANTZEŔKIJA.—Iragaŕita egun lengo larun batian, Euzko Ikastola tezkarijak eralduteko antzezkixuna tzeztu zan.

Aspaldijon, gure adizkide ta gorengua dan Ametzaga'taŕ Eŕaimlan aundijak egiŕen dauz. Euren antzeŕkijak auŕera eruan gurarik auŕera bira ugarijak darabiltz.

Umiakin-eta antzeŕki-gauzak batera ta bestera biraka ibilieko lako gixon askorik dagozanik, ez

Lengo egunian, "Gaiztua" deritzak idatziriko antzeŕkija, gastetxukin antzeztu eban.

Antzeŕki a, ikusten juan ziran tzat, atsegingaŕija ixan zan, batez eskularijen dantzea. Au baŕiro egi ixan eben. Zorijonak emoten da eta jaŕai bide oŕetatik, abeŕijarentzrakoŕak ixango diralako. Nik ori beintzat.

¿EDEGIKO ETE-DAUSKUBE onetan entzuten dan iŕaunerik ardbena, auxe da: ¿Edegiko ete-d Batzuben ustez, lasteŕ edegiko ei-dtzuk edegi be egin dira, ba, ta glasteŕ edegiko dalako ustia dago.

Batzokijak ertsi ixan dauskubezbijotzak azke geratu yakuz. Eta lekutik ataraten eztauskubezan abeŕtzaletasuna iŕerik eztago.

EUZKEL-IXENAK.—Agiŕe'taŕ Andoni'ren alabatxu jayopaŕija, Deuna'ren eŕtxadonan ugutzau eb Miren Karmele Aintzane euzkel-ifaŕak ezaŕi.

Jayopaŕitxubaren aŕabitxi - ameberonen aŕiña-amameak ixan ziran la'taŕ Kostantin, eta Lekube'taŕ BZorijonak gustijoi.

EUZKO-IKASLE

Dr. R. Aranbur
AZALEKO SENDAGILEA
Egunero 11-1, 4-7.
FUEROS, 5, tercero. — DONO

Irakurri EUZK

"ABELETXE" REN
EDARIDEGI TA JATETX
OSTATARIJAK ARTUKO LEUKEZ
BARRENKALLE, 13-15 URRUTIZKIÑA, 18
COMESTIBLES FINOS -:- -:- -:- LA CASA DE MAYOR GARANT
ESPECIALIDAD EN CAFES. — C. LARREATEGUI, 35, TELEFONO, 1

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAK

SAÑA

(2)

Atal bakar bateko Antzerkia

Garro'tar Bernarta Ma'k

Ipar-Ameriketa'ko beste antzerki batetik euzkeraz atondua

ona. Bera barik, inpernua ixango zuan au untziyau, Aguria gogoŕa dok-eta—gogoŕa be gogoŕa—mandazaña!—mandazañik gogoŕenak bere mando tristiak lez gayarabizak gu beti auŕetik eta (Baŕe ankeŕaz). Pozik egongo dok orain mandazaña—bere mandorik kutunenari—bere emaztiari—iya burutik eragin yotsak-eta! Eta a lez, bestiotarik be, nor ez zoratu Jaungoikuaren milagro bat dok untzi au zoroz beteriko untzi bat ez ixatia—lei madarikatu onegaz beti—gelditasun eta ixiltasun andi onen baŕuan beti--dagon ixiltasunaren-ixiltasunaz geure berbiaren zaratia entzutiak be ikaratu egiten gayauzak-eta.

BASIL.—(Eskoeko aterantz bilduŕti begiraturik). Kapitanesiak eztost niri geyago berbarik egiten—ezagutuko ezpa'ninduan lez begiratuten dost.

ESKIBEL.—Etxok ak iñor ezagututen —bere gixona, Aguria baño. Oŕaitiño, Aguriari artez eta zentzunez egiten yotsak berba—berba egiten yotsanetan.

BASIL.—Eta egun osuan eztau egiten yezaŕi eta yosi baño—eta gero, berekitian, bere baŕurako, negaŕez egoten da, zaratarik bape atara barik. Neuk ikusi dot alantxe.

ESKIBEL.—Bai, eta ostera be, ate ondora yuan ezkero, entzungo nayeuskiyok neuk be.

BASIL.—(Beatz ganeetan isil-misil doa ate ondora eta zeletan jarten da). Ointxe be negaŕez dago.

ESKIBEL.—(Sumin-sumin — ukubilaz zematurik). Inpernuan ikusiko al dau Aguriak bere arimia, demoniñua baño txaŕagua da-ta!

(Oñotsak entzuten dira. Eskoeko ate osteko zurubian beera geldiro datoŕen norbaitenak dira. Maordomua aŕapaladan doa bere plateretara. Bilduŕ ikarearen artegatasunaz, plater baten ertza joten dau eskuaz, eta beianganera jausten yako, amaŕ zati egiñaz. Izututa gelditzen da, bilduŕez dardak dan. Basil, baŕiz, sakeletik atara dauan mantaŕ bategaz txauneskiñoari (armonioari) igurtzi eta igurtzi jarten da. "Kapitanen kamaran" txapelik erantzi barik dagola gomutaten yako bat-batean, eta ariñik arin txapela erantzita sakelean goroeten dau. Eskibel 'ek bere beste ainbeste egiten dau. Onenbeztez, Zendokiz ontziburua agertzen da eskoeko atetik baŕuma, burutko nafu-txapela erantzirik gela-aretoan saŕtuaz beraz. Beŕogei - beŕogeta bost bat urteko gizona da, metro eta 70 cm. garaya; oŕaitiño, askozaz labuŕago emoten dau, sorbalda-zabala eta bulaŕ-lodia dalako. Arpegi-betea da eta gogoŕ antzekoa. Begi urdiñak dituz, eta otz eta zoi begiratuten dau. Aoa, ezpan lodiduna, zabala, arteza eta baperez biguna. Ulea, lodi eta luze, urdin samaŕa. Berna-erdiragiñoko jake-xamaŕa urdiñez jantziten da, Prakak bere urdiñak, belauna baño goragoragiñoko gomazko itxas - oskietan (polañetan) saŕtuta.)

(Untziburuari, Ibakaitz, Bigaŕen Untziburugeya daŕaiko, iya metro biko gazte argala, eguraldi askok jotako arpegi txikiaz. Pilitua bere, Untziburua bezelatsu janzten da. Ogetamaŕ urtekoa edo da.)

ZENDOKIZ.—(Maordomuagana joanik —betosko ilunaz. Maordomuak agiri-agiri dau ikaratuta dagona, eta plater piloañ dardaŕ egiten dautso eskuetan zarata. Zendokiz'ek ukubila jasoten dau, eta Eskibel, makuŕtuta, aldendu egiten yako. Zendokiz'ek geldiro egiten dau berba eta berba egin-ala ukubila beeratu egiten dau). Yotiaz beraz garbituko ezpa'neu...! Iya ordu batak dira, Eskibel, eta maya oindiño altzau barik?

ESKIBEL. — (Berbartunka). Ba-ba-bai jauna!

ZENDOKIZ.—Zeure zeregiñak egin biaŕian, atso baŕitsua lez mutilkondo oŕegaz zagoz emen beion berbetan. (Basil'eri, gaŕatz). Zu; kanpora emetik! Garbitu deŕotako kamaria! (Basil itsumustuan doa, eta atea igaro auŕetxoan Pilituaz egiten dau beatzaŕi). Eskibel; altza ori plater ori!

ESKIBEL.—(Platera nekez jasoten dauala). Bai, jauna.

ZENDOKIZ.—Ufen platerik ausi daizunian, jaun Mayordomu edo Eskibel aŕayuoŕek, bañua aŕtuko dostazu Bering'go Itxasuan, soka-mutuŕ bateri lotuta.

ESKIBEL.—(Dardaganian). Bai, jauna. (Aŕapaladan doa igesi. Bigaŕen Pilitua geldiro-geldiro datoŕ Untziburuagana.)

IBAKAITZ.—Egin-egiñian be, nik beoŕeri esan biaŕ dotsatena, axek timonelak ez entzutia gura ixan dot. Oŕegiatik esan dotsat beoŕeri ona beera etoŕteko.

ZENDOKIZ.—(Iŕituan). Esan esateko ori, Ibakaitz.

IBAKAITZ.—(Gura barik, moteldu egiten yako abotsa). Gauzak zelan datozen ikusita, Kapitana, bilduŕ naz baŕuko-gixonakaz nasteren bat ixango ez ete dogun. Gaŕatz be gaŕatz parauko ete diran nago, eta guzti-guztiyak parau be, porturanzko eŕunbua beoŕek aŕtu gura ezpa 'dau. Gauŕ beteten dira euren kontratuko urte biyak.

ZENDOKIZ.—Eta ezer baŕirik esaten dostazula uste ete dozu, ene Ibakaitz? Aspalditik daukot nik ori susmauta. Uste ete dozu eztotazela nik ikusi areen begirakunak eta biaŕerako darabilezan makulakeriya guztiyak, ala?

(Ezkeŕeko baŕeneko atea zabaldurik, Mari-Jesus Kajitanesia, Zendokiz'en emaztea agertzen da, eta bertan atean gelditzen da zutunik. Emakume txiki lirain bat da, arpegi gozoaz, baltzez eta txukuntasunez jantzia. Begiak goŕi dituz, negaŕ egiñikoarena legez, eta zurbil dau arpegia, betondo ubelakaz. Gela-aretoan saŕtzen da, bilduŕti begiraturik, eta geldi-geldi lotuten da, ezin esan-alako izulaboŕiren batek beianganera josita bai'leukan. Eskuak alkaŕen ganean daroaz, eta artegeren andiz, bateko atzamaŕak bestekoakaz aŕtetu eta askatuten daragoio beti. Gizon biak, burua biurturik, begira jaŕten yakoz).

ZENDOKIZ.—(Samurtasunez, baña baldaŕ, polikeri baŕik). Zer diñozu, Mari-Jesus?

MARI-JESUS.—(Ameseta baterik iratzaŕtu ixaŕ bai'leuen). Jose Migel, nik... (Isilik gelditzen da. Pilitua aterantz abiauten da).

ZENDOKIZ.—(Pilituagana biurturik—zoŕotz eta labuŕ). Zagoz!

IBAKAITZ.—Bai, jauna.

ZENDOKIZ.—Ezer gura dozu, ala, Mari-Jesus?

MARI-JESUS.—(Zati baten isilik dago, bere gogoeta edo oldozkunak batu gurarik bai'liarduan). Nik, ba—uste ixaŕ dot—biaŕba. zubi-ganera edo kubierta ganera yuan naitekiala, Jose Migel, aixe garbi pizka bat artutera. (Egon dago, geldi eta apal, senaŕaren baietza itxaroten. Untziburuak eta Pilituak alkaŕen arteko begirakuna aituzko bat egiten dabe).

ZENDOKIZ.—Gaur otzegi dago, Mari -Jesus. Oba dozu gaurkoz emen beian gelditu. Kuberta ganean eztago zeri begiratu ezer—leya baño.

MARI-JESUS.—(Lelo bategaz legez). Ba-dakit—leya, leya, leya! Baia. emen beion be eztago zer ikusiŕik ezer, oneek ormok baño. (Destañezko parizta bat egiten dau, ormaeri begiratuez).

ZENDOKIZ.—Armoniyua yo ziñei.

MARI-JESUS.—(Itunez). Goŕotua dotsat armoniyuari. Etxeko gomutia ekaŕten dost.

ZENDOKIZ.—(Eŕenkura - antza bere berbaeri emonez, dolidu egin bai'litxakio -edo). Egin-egiñian be, zeugaitik ekaŕi neban, ba.

MARI-JESUS.—(Itunez). Ba-dakit. (Biurturik, astiro-astiro aldenduten da gizonakanik eta ezkeŕeko alki-zabalera doa. Aren ganean belaun bat imiñirik, bateko eŕezela alboratuten dau, eta zeaŕ begiratuten jarten dalarik, batpozezko oyuka asten da). Ai...! Un garbiya! Ikusi al daiteken asagoran garbiya! Au da ikuskixunaren edeyezko ile guztiyon ostian! (Ginobiurtuten da arpegi aŕayez, pozez datuta). Ai! Kubierta ganera yuan dot orain, Jose Migel, urari begira gira gogait egin arte egoteko.

ZENDOKIZ.—(Betoskoaz). Oba gauŕ ez yuatia, Mari-Jesus. Oba dozu ron—eguzkiyak diztira egiŕ dayan baterarte.

MARI-JESUS.—(Uste guztiak —samintasunez). Baia, eguzkiyak sekula diztirarik egiten leku ikaragaetan.

ZENDOKIZ.—(Abotsari agindu emonez). Oba dozu gauŕ ez yuatia, -Jesus.

MARI-JESUS.—(Agindu onen konkoŕturik). Ondo dago, Jose (Geldi-geldi lotuten da, begiak zaauŕerantz begira. zerbaitek liluratuta Gizon biak kezkaz jaŕten yakoz be

ZENDOKIZ.—(Zoŕozkiro). Mari-

MARI-JESUS.—(Itunez). Bai, Jose gel.

ZENDOKIZ.—Nik eta Ibakaitz'ek zo batzuen ganian berba egin biaŕ —untziko arazuak.

MARI-JESUS.—Ondo dago, Jose gel.

(Astiro-astiro urteten dau baŕeneko keŕeko atetik. eta bere atzean atea bat zabalik izten dau.)

ZENDOKIZ.—Obeto dau kubierta nean ez egotia, nasteren bat ba'litz